

Ahantzura



ARITZ GALARRAGA

Australian, Sidneyn, Liverpool Street izenekoan omen daude –edo zeuden, behintzat, hain azkar aldatzen da dena– jate-txe espainiarrak. Guillem Martinez kazetariak kontatzen du, sekula aurretik, eta geroztik ere ikusi gabeko bi ezaugarri zituztela: baga, sukaldaritza espainiarra ahaztuta zuten, XX. mendeko 60etan osatutako plater multzo hori; zeozer antzekoa sukaldatzen zuten, nahiz erabat diferentea eta ezagutezina izan, plateri ematen zieten izenarekin konparatuz behintzat. Eta biga, bakana, jatetxe haien jabeek beren ama hizkuntzak, gaztelania, edo galegoa, ahaztuta zituzten erabat. Izateko modu erlaxatu bat iruditu zitzaion Martinezi. Ingelesez hitz egin behar izan zuen behin galegozko hitzen bat tartekatzen zuen jabe batekin. Bere herrialdea, Australia, ez zuen ondare izpiritual baten gisara definitzen, objektu sorta bat bezala baizik –“Hemen ez zegoen ezer. Ezinezkoa zen baratxuriak aurkitzea. Txinatarrak iritsi ziren arte”–; eta bere naziotasuna, australiarra, ez zuen zera abstraktu baten gisara definitzen, eskubide sorta bat bezala baizik –“Zuk noiz eman ahal izan zenuen botoa lehen aldiz? Nik, 1967an”–. Jatetxe horietan sartzean bizizaletasuna sentitzen omen zen, izugarriko askatasuna. Lotura antzinako eta ikusezinetatik askatutako jendea zen. Eta, kontrara, norbere loturak uzten zituzten agerian. Australiako ahantzura inbidiaz gogoratzen du kazetariak. Beharrezkoa da ahaztea. Zenbat denbora, zenbat belaunaldi daramagu ahaztu gabe? Zenbat daramagu gogoratu besterik egiten ez dugula?

Esaten dute memoria garena, memoriarik gabe ez ginatkeela gizaki; baina, egiazki, ez ote den gizaki ez garena ahantzurarik gabe. MZ, gure Michel Onfray partikularrak –Michel Onfray ona, bistan da, ez orain bilakatu den gauza gorri-arre hori–, esaten zuen, ez dut gogoan non, gizakiaren ahazmena indartsua dela, ezinbestekoa gainera orainaz gozatuko badugu. Memoria, esan dezakegu dagoeneko, gainbaloratuta dago. ●

ESPAINIAKO KONSTITUZIOA
AZKENEAN ZUBIAN
EZ DA GUREA!
NONBAITERA JOAN ZINEN?

BAI, NAZIO BAT GARA
BAI, FURGONETA HARTU
ETA GURE ETORKIZUNA
ETA ESKIATZERA JOAN GINEN
ERABAKI NAHI DUGU!
AZOKATIK PASA OSTEAN, NOSKI!



ADUR

Deliveroo

Espainiako Estatutik eta beraz Hego Euskal Herrietik irten da Deliveroo janari banaketa enpresa, eta 3.800 langile inguru kaleratu ditu. Udan iragarri zuen estatutik irteteko asmoa, Espainiako Gobernuak Rider Legea ezarri zuenean. Argudiatu dute ez zaiela bideragarri.

COVID-19

Hiru hilabete ere ez dira EAEn osasun larrialdia bertan behera utzi zuela Jaurlaritzak. Bada, larrialdi egoera berrezarri du. Horrez gain, EAEn ere (Nafarroan eta Ipar Euskal Herrian bezala), covid ziurtagiria ezarri da hainbat jardueratan.

Higa

Hurrek ahoz duten hizkuntza garapena euskaraz aztertu ahal izango da Higa tresnari esker, ohikoa bestea baita: haur euskaldunek hizkuntza garapenean zailtasunak dituztenean frantsesezko edo gaztelaniako ebaluazio tresnak erabili ohi dira.